

Ermuar bat estatuko atleta onenen artean

Javier Villalobos estatuko atleta onenatarikoen artean ezaguna da jadanik. Bere 19 urteetatik 13 atletismoa egiten pasatu ditu, eta jauzi bat egiten duen bakoitzean, gora, oso gora begiratu behar izaten dugu...Aurten, Espainiako Txapelketan bigarren postua lortu du bere kategorian, eta laugarrena "absolutua"n. Olinpiadei dagokionez, gazteegia da Atlantara joateko, baina hurrengoetarako has daitezela dardar egiten!

-Nola hasi zinen altuera jauzia egiten?

-Lehenengo, atletismoarekin hasi nintzeanean, sei urte pasa nituen krossean. Bizkaiko Txapelketan hirugarren postua lortu nuen, eta Euskal Herrikoan laugarrena. Apendizearen ebakuntz baten ondorioz, krossean asko "galdu" nuenez probaz aldatzea erabaki nuen. Altuera, luzera eta abiadura probatu nituen, eta altueran ona nintzenez, jarraitzea bururatu zitzaidan. Eta horrela gaur arte; sei urte daramatzat altuera jauzia egiten.

-Nolakoak izaten dira zure entrenamenduak?

-Astean sei egunetan izaten dira, eta egun bakoitzean bi ordu. Neguan, urritik otsailera, pesak egiten ditut indarra hartzeko. Gero teknika lantzen dut, pistetan marka onak atera

ahal izateko.

-Asteburuero izaten al dituzu txapelketa edo lehiaketak?

Bai, baina aurten garrantzitsuenetan bakarrik parte hartzen dut. Denetara jeonez gero "erre" egingo nintzateke.


-Zelako eragina dauka atletismoak zure eguneroko bizitzan? Pena merezi al dute hainbeste ordutako entrenamenduak?

-Bai noski! Ikasketek denbora gehiago kentzen didate...egun osoan entrenatu beharko banu ere, ez litzaidake axolako.

-Entrenatzeko instalazio egokiak al dituzu Ermuan?

-Bai zera! hemen ez dago ezer. Udalak "batida" egiteko behar dudana egiteko zai gaude. Ez dugu frontoi osoa eskatzen, bakarrik jauzia egiteko "tartala" jar dezatela. Bestalde, pesak egiteko ere, arazo ugari ditut. Ni 100 edo 110 kilokoekin konformatu behar naiz, eta nirekin lehiatzen dutenek aldiz, 200 kilotakoak erabiltzen dituzte gutxienez...Euskal Herrian, toki gutxitan daude instalazio egokiak: Bilbon, Gasteizen...herri txiki batzuetan, behintzat polikiroldegian dituzte baina Ermuan ez dago ezer...

-Horrek eragin handia izango du txapelketetan, ezta?



Javier Villalobos irabazitako domina batekin.

-Bai, txapelketetan eta baita ere nire hanketan. Zemento gainean bost jauzi egiteak ez du inolako ondorioz, baina astean mila jauzi baino gehiago egitean, minak hasten dira. Horregaitik izan ditut hainbeste min (lesio). Bakoitzean leku batetan...honek, noski, eragina du lehiaketetan.

IGNACIO PEREZ

-Eta entrenatzaile eta klub-ari buruz zer esan zenezake? Pozik zaude?

-Entrenatzailearekin bai. Antonio Cid, entrenatzaile nazional asko baino hobea da eta asko laguntzen dit. Klubari dagokionez, orain EHUn nago. Herrietako klubek ez dute irtenbide gehiegirik, ona izan zaitezke, baina

ez dizute laguntza handirik eskaintzen. EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea) aldiz Euskal Herriko onenatarikoa da, posibilitate asko eskaintzen bait dizkigu.

-Zer sentitzen du pertsona batek txapelketa garrantzitsu bat hasi aurretik?

-Hasieran oso urduri egoten zara baina gero lasaigo zaude. Hala ere, Espainiako azken txapelketa honetan oso gaizki pasatu dut. "Absolutu" bat zenez, ni baino nagusiagok diren pertsonen aurka lehiatzen nuen. Lehen postuetan gelditzea ezinezkoa iruditzen zitzaidan, baina halere laugarren postua lortu nuen... txarto pasatu nuen benetan...

-Etorkizunari begira, atletismoaz bizi zaitezkeela uste duzu? Zer aukeratuko zenuke, atletismoa ala zure ikasketekin -kalitate kontrola- zerikusia duen lan bat?

-Ahal banu behintzat, biak batera egingo nituzke. Hala ere, krisia dela eta, lana aurkitzea ez da batere erraza, eta ez dakit atletismoa izango de irtenbidea. Momentuz "goian" mantentzen naiz, eta entrenamenduak instalazio egokietan egiten ditudanean ikusiko da benetan balio dudana...

-Idoloren bat?

-Munduko txapelduna, Javier Sotomayor.

-Zeintzuk dira zure helburuak atletismoari dagokionez?

-Epe motzean, 2'20 metrotako jauzia egin nahi nuke. Aurten 2'12koa egitea lortu dut, eta hurrengo urtean 8 zentimetro gehiago lortzea da nire helburua. Pesak ondo asimilatzen baditut, lortuko dudala uste dut. Ondoren 2'26 metro lortu beharko nituzke Munduko Txapelketan parte hartu ahal izateko. Eta azkenik, Olinpiadetarako 2'28ra heldu beharko nintzateke. Hori da nire ametsa... oraindik gazteegia naiz, baina hurrengoetarako...

FITXA TEKNIKOA

IZENA - JAVIER VILLALOBOS SANTOS
ADINA - 19 URTE
ENTRENATZAILEA - ANTONIO CID
KLUBA - EHU
JAUZIA - 2'12 m
PALMARESA -
- BERE KATEGORIAN ESPAINIAKO TXAPELKETAN 2. POSTUA
- ESPAINIAKO TXAPELKETA "ABSOLUTUAN" 4. POSTUA

Ainhua Delgado



TXINDURRI TALDEA

Tokian tokiko

ZARAUZTARRA
JATETXEA

LEHEN, ORAIN
ETA BETI

- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana



Egurrola

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Valdespina, 8
Tfnoa. 17 04 64



ETERNA

AGENTZIA
OFIZIALA

OKINDEGIA
Ignacio Peña

Okindegikoa: 17 01 69
Etxekoa: 17 14 55

Goienkalea, 12 - beheka 48260 ERMUA

